



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
124. zka 4. etapa GR-283	Otzaurte-Lizarrusti 2018-02-17/18

Xendazale adiskideok:

Ibilbide fotografiko honekin hasiko dugu 2018ko egutegia. Gainera, bigarren aukera eta guzti, aurtengo lehen irteera izanik, gerta liteke-eta norbait sasoi-puntuan ez egotea. Abiapuntua Otzaurteko Bentaren atzeko aldean izango dugu. Aitzabal gailur apalera joko dugu, gero Gazbidera eta handik Etzegarate (edo Etxegarate) mendate (*) ezagunera jaitsiko gara.

Horretarako prestaturiko igarobidetik edo nork bere kontura, N-1 zeharkatu ondoren, Balankalekuko (985m) lurretara igoko gara. Hemen gidari leial izango dugun lerro banatzailea hartuko dugu. Larreluzeko trikuharriarekin topo egingo dugu eta jarraian Sartzamendiko Mikeleteen etxe zahararen hondakinekin, eta Auntzeta aldera iritsiko gara; han ezkerretara hartu eta laster Igartzako (882m) gailurrera helduko gara.

Puska batean ur-banatzailearekin dantzatu ondoren, Bernoako Galtzada ospetsura iritsiko gara. Galtzada hau XIX. mendera arte erabili zen. Bernoako galtzadaren, Urbasa Pasaia Donibanerekin elkartzen omen zuen mandabidearen, zenbait zati Sakanako lau herritan lan egin duen nazioarteko boluntario-talde bati esker irten dira argitara.

Eta "dantza" aipatu dugunez, kontatzen da Ataungo gazteek ere erabiltzen zutela Burundara, Altsasuko jaietara joateko. Dena den, etengabe gora eta behera egiten du, baina desnibel handiak ez dira eta bai ibiltzeko erosoak.

Beste gailur bat (Intxusburu/943m), "ehunka urteko" gailurra, Etzegaraten hasi eta Lizarrustin amaitzen den gailur-lerroaren erdian dago. Gipuzkoa eta Nafarroa artean dago, trikuharri bat gainean duela. Gero, Irumugeta edo Irumugarrietara (965m) iritsiko gara, mugarri ezagunarekin; aurreraxeago eskuinera Txaradigorri (994m) utziko dugu, eta handik azken jaitsiera Lizarrusti mendatera.

(*) Planteatzen dugun beste aukera Etzegarate mendatean hasten da, eta honela ordu/ordu eta laurden kenduko diogu ibilaldiari gutxi gorabehera.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Otzaurte-Lizarrusti

Beharrezko denbora		5,30 ordu – (*) 4,35 ordu									
Goranzko desnibel metatua		1.012 metro – (*) 822m.									
Beheranzko desnibel metatua		1.107 metro – (*) 861m.									
Zeharretara egin beharreko distantzia		19.380 metro – (*) 14.990m.									
	Inguru a	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-g.)
Aurkezteko ordua	07:25 (Bilbo plaza) eta 07:30 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXX jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2018-02-15eko 12:00etan

Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

